



ONDARROAKO UDALA

KIROL BATZORDEAREN BILERAKO AKTA

Bilera-zenbakia: 2015/3
Eguna: 2015-07-09 (osteguna)
Ordua: 19:00
Tokia: Udaletxeko 2. Pisuko batzar gela

Bertaratuak

Unai barrenetxea, kirol batzordeburua
Josu Arrizabalaga, alkatea
Mikel Aramaio, Bilduko ordezkaria
Eladino Gonzalez, C.D. Aurrerako ordezkaria
Mila Rodriguez, Udal kiroldegiko zuzendaria
Gorka Elordi, Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkaria
Jose Irueta, Koaxi Triatloi Taldeko ordezkaria
Juan Badiola, Tontorramendi Aurrera Mendi Taldeko ordezkaria
Jose Ramon Osa Etxaburu, idazkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak

Bertaratu ez direnak

Artibai Judo Taldeko ordezkaria
Arrigorri Itsas Arrantza Elkarteko ordezkaria
Asoc. Inmigrantes Senegaleses de Ondarroako ordezkaria
Asoc. Senegaleses Pueblao de Bassoul en Euskadiko ordezkaria
Aurrera Geuria Txirrindu Taldeko ordezkaria
Eskilantxarri elkarteko ordezkaria
Karate taldeko ordezkaria
Ondarroako Atletismo klubeko ordezkaria
Ondarroako Pala Taldeko ordezkaria
Ondarroako Urpeko Elkarteko ordezkaria
Ondarru Igeri Taldeko ordezkaria
Orkatzen Peñako ordezkaria
Zubi Zahar ikastolako ordezkaria

Aztergaiak

1. 2015eko otsailaren 24ko aktaren onespena, hala badagokio.
2. Kirol batzordeburu berriaren aurkezpena.
3. Balorazio batzordeko kideak izendatzea 2015eko dirulaguntza banaketa egiteko.
4. Eskaerak eta galderak.



ONDARROAKO UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2015eko otsailaren 24ko aktaren onspena, hala badagokio.

Aho batez onartu da akta.

2. Kirol batzordeburu berriaren aurkezpena..

Idazkariak Unai Barrenetxea aurkeztu du kirol batzordeburu berria bera dela esanez.

Unai Barrenetxeak esan du berdintasuna hartuko duela oinarritzat bere lana aurrera eramateko. Kirol batzordean egin beharreko lana herriaren aldeko lana dela eta denon artean egitekoa dela (herriko kirol taldeena eta ordezkari politikoen). Politiko lez, bakarrik ez dela egongo lan honetan esan du eta Mikel Aramaio, Iñaki Beitia eta Arantza Burgoaren osatuko dutela bere lantaldea.

3. Balorazio batzordeko kideak izendatzea 2015eko dirulaguntza banaketa egiteko.

Idazkariak esan du balorazio-batzorde bat osatu behar dela 2015ean kirol ekintzak egiteko Udalak egin duen dirulaguntza deialdiko oinarrietako 7.3 artikuluan jasotakoa betetzeko. Aipatu artikuluan jasotakoaren arabera ondorengo kideek osatuko dute balorazio batzordea:

- o Lehendakaria: Batzorde burua
- o Idazkaria: Ondarroako Udaleko prozeduretako PRO8an jasotzen den arduraduna
- o Kideak: BILDUKo ordezkari (2), EAJ-PNV ko ordezkari (1), eta kirol batzordeko ordezkari (2, botorik gabe).

Bilduko kide lez ondorengoak izatea erabaki da:

Mikel Aramaio edo bere ordezkaria eta Iñaki Beitia edo bere ordezkaria

Kirol batzordeko ordezkari buruz, beti egon izan diren taldeen ordezkariak izatea erabaki da: Arraun Elkarteko ordezkaria eta Koaxi Triatloi taldeko ordezkaria.

4. Eskaerak eta galderak.

Koaxi Triatloi taldeko ordezkariak erregistro elektronikoaren gaia mahairatu du. Hau dela eta komentatu du ea posible den udaletxe batean aurkeztu beharreko agiri bat beste udaletxe baten aurkeztea eta azken honek, bidali behar den udaletxera bidaltzea.

Ondarroako udaletxean ez dela posible hori egitea azaldu du idazkariak eta ondoren, gaia eztabaidatu da.

Ondoren batzarra amaitutzat eman du batzordeburuak.

Jose Ramon Osa Etxaburu
Idazkaria



O.e.
Unai Barrenetxea Gurrutxaga
Kirol batzordeburua